

Txostena

Informe

**Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko
langileen kontratazioaren fiskalizazioa**

**Fiscalización de la contratación de personal
de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo**

2011-2012





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK	5
I. SARRERA	7
II. ONDORIOAK	9
ALEGAZIOAK	13
BOTO PARTIKULARRAK.....	23
ABREVIATURAS.....	33
I. INTRODUCCIÓN	35
II. CONCLUSIONES	37
ANEXOS.....	41
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y legislación que le resulta de aplicación .	41
A.2 Presupuesto de gastos de personal	42
A.3 Medios personales iniciales	43
A.4 Gestión de personal.....	44
A.4.1 Proceso de creación de la bolsa de trabajo para orientador laboral	44
A.4.2 Movimiento de personal.....	46
ALEGACIONES	49
VOTOS PARTICULARES	59

Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailaren 27a

Vitoria-Gasteiz, 27 de febrero de 2014



LABURDURAK

EHAA	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
XG	Xedapen Gehigarria
354/2010 Dekretua	Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren jardueren hasiera eta bitarteko pertsonal eta materialetarako atxikimendurako baldintzak arautzen dituena.
XI	Xedapen Iragankorra
ZPEP	Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoa
6/1989 Legea	Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
7/2007 Legea	Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua onartzen duena.
2/2009 Legea	EAEren 2010eko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena.
39/2010 Legea	2011rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
3/2011 Legea	Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzkoa.
2/2012 Legea	2012rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
EA	Erakunde Autonomoa
EPE	Enplegu Publikoaren Eskaintza
ED	Errege Dekretua
EDL	Errege Dekretu Legea
SBE	Sarrereren Berme Errenta
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
SA	Sozietate anonimoa
EEZP	Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia



I. SARRERA

HKEEk, Eusko Legebiltzarraren Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeak eta Osokoak hala eskatuta, Lanerako Planean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak gauzatutako langileen kontratazioaren fiskalizazio lana besarkatu du.

Lanaren mamia honako hau izan da:

- 2012ko abenduaren 31ra arte gauzatutako langileen kontratazioen analisia, ezargarria den legeria bete dela eta aurrekontuan estaldura bazegoela egiaztatuz.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak sortutako lan poltsak eratzeko prozeduren legezkontasunaren analisia.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua zuzenbide pribatuko erakunde modura sortu zen EAEk 2010eko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 2/2009 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren bitartez eta Eusko Jaurlaritzan enplegu gaietan eskumena zuen sailari atxiki zitzaion.

Aipatutako bigarren XGari jarraiki, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak xedetzat du enplegu egonkor eta kalitatezko erabateko eskubidearen erabateko garapenari laguntzea, eta gizarte-eta lurralde-kohezioari lagunduko dion lan-merkatuaren garapenaren alde lan egitea, eta enpresaren eskakizunei egokitutako langileen premiak asetzea, baita gizartearen eta lurraldearen kohezioari laguntzea ere, beti ere Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen eremuan esleitzen zaizkion enplegu-politiken kudeaketaren bidez. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bere egitekoa gardentasun, aukeraberdintasun eta ez diskriminazioko printzipioetara egokitu beharko du.

354/2010 Dekretuak, abenduaren 28koak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera jardura abiaraztea arautzen du eta gauza eta giza baliabideak atxikitzea; berebat, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura atxikitako funtzionarioak eta lan kontratuak jasotzen ditu, zeinetan subrogatzen den. Langileria hau Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saileko Egailan, SA, Prestakuntza eta Enplegua Sustatzeko Sozietate Publikotik eta Estatuko Enplegurako Zerbitzu Publikoko (SEPE) langileria EAERA eskualdatzetik dator.

2011ko urriaren 13an Eusko Legebiltzarrak 3/2011 Legea onartu zuen, azaroaren 2ko EHAAn argitara eman zena eta hurrengo egunean indarrean sartu zena. Lege honen arabera Lanbide-Enpleguaren Euskal Zerbitzuak bere molde juridikoa aldarazi zuen eta izaera administratiboko Erakunde Autonomo bihurtu zen.

Txosten hau idatzi dugun datan eta azaroaren 24ko 4/2011 Legea ezarriz, Sarrerren Bermerako eta Gizarteratzeko Legea aldatzen zuena, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoak, Sarrerren Berme sistema kudeatzeko ardura ere bere gain hartu zuen.

Maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretu bidez Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren estatutuak onartu ziren eta 2012ko ekainaren 4ko EHAAn eman ziren argitara.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Aztertutako aldian zehar, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egin duen langileen kudeaketa izan da eskualdatutako langileak subrogatzea eta langileak kontratatzea - erregela orokorrekarekin EA Eren Administrazio Orokorrak dituen lan poltsak baliatuta edo, hauek izan ezean, berariazko lan poltsak sortuz, laneko orientatzaileen kasuan egin zen legez-.

Aldi honetan zehar langileen mugimendua honakoa izan da:

	Kopurua
2011/01/01ean eskualdatutako langileak (ikus A.3)	575
Beste batzuk (Ikus A.3)	4
Altak (ikus A.4.2).....	578
Bajak (ikus A.4.2).....	(265)
2012.12.31-N	892

II. ONDORIOAK

Hona hemen gure lanean zehar azaleratu diren alderdirik esanguratsuenak:

1. Aztertutako aldian ez Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, ez Eusko Jaurlaritzak ez dute LZ ez egin, ezta onartu ere. Egoera honen ondorioz, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak aztergai izan dugun aldian gauzatutako 147 aldi baterako kontratuak eta bitarteko izendapenak ezin zitezkeen egin, harik eta lanpostuak arauz bete arte.
2. 2012ko abenduaren 31n langile finkoen kopurua gehi lanpostua arauz bete arte kontratatu eta/edo izendatu direnen kopurua erakunde autonomoaren aurrekontu plantillako plaza kopurua baino 38 gehiagokoa izan da, guztira 575 plaza egiten dituen. Plantilla hori da egitura-langileria osatzeko gehiengo muga.
3. Egailan, SATik etorritako langileetatik, 2011ko ekainean amaitu zen programa baterako aldi baterako kontratua zuten 9 lan orientatzaile eta 10 administrari laguntzailek zerbitzu ematen jarraitu dute 2013ko maiatzera arte, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak indarreko legediari jarraiki inongo kontratazio berririk egin gabe.
4. Arlo-arduradunen 14 lanpostu betetzeko deialdietan harik eta LZ egin arte, eta beste 31 lanpostutan barne mugikortasuna sustatzeko deialdietan (langile guztiei eskaini zitzairen, bete beharreko egitekoek botere publikoen aribidea eskatzen duten balioztatu gabe) balioztatu beharreko irizpideen haztapena ez da deialdian jaso eta balorazio txostenak ez daude behar bezain arrazoituak, izan ere, puntu esleipen hutsa baino ez da, kasu batzuetan aurkeztutako curriculumei egokitzen ez zaizkienak eta beste batzuetan deialdietan adierazitako irizpideetako batzuk jasotzen ez dituztenak, alde hauek eragin dituzten arrazoiak argitu gabe.
5. 2011ko azaroaren 2an Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak aldi baterako 6 langile kontratatu ditu baloratu beharreko merezimenduen puntuazioa zehazten ez zuen hautaketa prozesu baten bitartez; eskabideak aurkezteko epea 8 lanegunetara mugatzen zen eta aldeaz aurretik Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izen ematea eskatzen zen; gainera, izendapenak euskarritzen zituen txosten-proposamenak ez zuen behar hainbat justifikatzen izangaien artean pertsona horiek hautatu izana. Jokamolde honek ez du berdintasun, gaitasun eta merezimendu printzipioak beteko direnik bermatzen.
6. 2010eko abenduaren 30ean Egailan, SAK kontrataturiko bi pertsona, bat lan kontratu finkoduna, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan sartu dira 354/2010 Dekretuan jasota egon gabe. Aipatutako dekretuaren 5. artikulua adierazten du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua Egailan, SAren lan-kontratuko langileen kontratuetan subrogatzen dela, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bere gain hartutako funtzioak betetzen dituzten haietan, alegia eta eranskin batean pertsona horien zerrenda zehazten da; ordea, bi pertsona horiek ez daude zerrenda horretan jasoak.
7. 2011ko urtarrilean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak aldi baterako bi administrari laguntzaile kontratatu zituen EAEn Administrazio orokorraren lan-

poltsak baliatu gabe, 354/2010 Dekretuaren 7.3 artikulua agintzen duen moduan, kontratazio hori publikotasunik gabe eginez. Jokamolde honek ez du berdintasun, gaitasun eta merezimendu printzipioak beteko direla bermatzen.

8. Txosten hau idatzi dugun datan, hainbat epai jaulki dituzte Lanbide-Enpleguaren Euskal Zerbitzuak langileen kontratazio eta kudeaketan egindako jardueren aurka jarritako errekursoekin loturik. Epai horiek lan orientatzaileen lan-poltsaren deialdia eragiten dute, zeinaren bitartez 153 kontratazio eta/edo izendapen gauzatu diren, alorreko arduradunen 14 lanposturen deialdia eta barne mugikortasunerako 31 lanpostu betetzeko deialdia. Epai horiek deialdiak ez zaizkiola zuzenbideari egokitzen adierazi dute eta balio gabe utzi dituzte, Lanbide-Enpleguaren Euskal Zerbitzua zigortu dute hautaketa prozesuak deialdia egin zen unera itzultzera eta horien oinarri-arau arautzaileak onartzera. Epai horien oinarrietan jaso da, besteak beste, merezimenduak balioztatzeke moldeak ez dituela merezimendu eta gaitasun printzipioak gordetzen.

Berebat, EEZPtik transferitutako 61 lan orientatzaileek jarritako salaketan ondoren hainbat epai jaulki dituzte, zeinetan lan harremanak izaera mugagabea zuen harik eta lanpostua arauz bete arte.

9. Aurreko ataletan adierazitako egoeren ondorioz, Lanbide-Enpleguaren Euskal Zerbitzuak zehaztu egin behar ditu erakundearen langile beharrizanak eta azaleratu diren akatsak zuzenduko dituen langile-politika abiarazi. Horretarako:
- Erakunde Autonomoaren egiturazko beharrizanekin bat datozen lanpostu eta giza baliabideak identifikatu behar ditu eta horretarako aurrekontu plantilla aldaraztea bideratu eta LZ mamitu.
 - Berebat, unean unekoak eta ez egiturazkoak diren beharrizanak bereizi behar ditu, aldi baterako edo sasoiaren arabera izaera duten kudeaketa programetan argitasunez zehaztu daitezkeenak eta horiei, aurreko irizpideari jarraiki, Erakunde Autonomoaren plantillan zuzkituko ez diren giza baliabideak atxiki.
 - Kasu bietan ere, hornidura langile finkoen eta aldi baterako kontratazioa arautzen duten arauak ezarritako suposamendu eta prozeduren arabera egin behar da.
10. Hona hemen ekonomia-finantza jardueran buru egiten duten printzipioak betetzean garrantzizko eraginik ez duten bestelako irizpenak eta kudeaketa hobetzeko azaleratu diren prozedurazko hainbat alderdi:
- a) Aztertutako kontratazioetako batean Justizia eta Herri Administrazio Sailari EAERen Administrazio orokorreko lan-poltsatako langileak eskatu zitzaizkion, lanpostu hutsak bete arte kontratua egiteko. Alabaina, azkenean gauzatu zen kontratua denbora jakin baterako izan zen. Beste bi kasutan, eskabideak data jakin bat arte kontratuak egiteko izapidetu ziren eta aldiz, kontratuak lanpostu hutsa bete arte egin ziren. Beste batean, eskabidea epe jakin baterako izan zen eta aldiz, izenpetutako kontratua baja betetzeko bitarteko kontratuari dagokiona da.

b) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren langile beharrianak zehaztuz eskuratu dugun azterketa bakarra izan da 72 lan orientatzaile eta 90 administrari dauden 39 bulegoen artean banatzea, bakoitzak kudeatu behar dituen enplegu eskatzaile eta Sarrerren Berme Errentako espedienteen ehunekoetan oinarriturik, baina langile kopuru honen beharra justifikatuko duten arrazoiak jaso gabe. Bestetik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eskuratu digun 2012rako aurrekontuaren xehapenak 60 lan orientatzaile eta 2011ko irailean zeudenaz gain beste 90 administrari soilik barne hartzen ditu.

c) 8 langilerekin lanpostu hutsa bete arteko bitartekotasun kontratuak izenpetu dira eta aurretik zituzten iraupen jakineko edo ordezkapenezko kontratuak ordezkatzeko zituzten berriak egin zaizkie. Aztertu ditugun kasuetatik 4tan, gainera, aurreko kontratua iraungi gabe zegoen oraindik.

Kontratuak iraungi zirenean pertsona hauek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak osatutako lan-poltsetara igaro behar zuketena, 354/2010 Dekretuak agintzen duen moduan. Ordea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ez du lanpostu horientzat inongo lan-poltsarik sortu eta honenbestez, EAEn Administrazio orokorreko lan-poltsak baliatu behar ziratekeen.

Lan orientatzaileen lan poltsa sortzeko prozesuan, 8. atalean jasotako ebazpenetako batek baliogabetu duena, honako huts hauek azaleratu dira:

a) Lan orientatzaileentzako lan poltsaren deialdia ez du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren administrazio-kontseiluak, ez zuzendari nagusiak onartu. Nahiz Erakundearen estatutuek Lanpostuen Zerrenda onartzea eta Enplegu Publikoaren Eskaintza deitzea berariaz Administrazio Kontseiluak soilik egin zezakeela jasotzen duen, ez da esaten lan poltsak osatzeko deialdia zuzendari nagusiaren edo baliabideen zuzendariaren eskumena denik.

b) Enpleguaren orientatzaile teknikari eta Enplegua kudeaketa teknikari modura jarduteko eskarmentua eskatu eta baloratzen da baldintza modura. Alabaina, egiteko hauek normalizatu gabe daude lan esparruan. Ez dugu ziurtasunik balorazioa egin duen enpresaren eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren artean egoera hauek mugatzea bideratuko duen dokumentaziorik dagoenik.

c) Deialdiak ez zuen esaten lan-esperientziaren denbora-zatikia nola balioztatuko ziren eta urteak osorik soilik aurreikusten ziren. Alabaina, balorazioa lan egindako hilabeteak aintzat hartuta egin da.

d) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan egiten diren enplegu eskaeren edukia lan eskaintza eta eskaria egokitzeko behararen ondorio da eta ez dago Administrazio publikoarentzat lan poltsa baterako merezimenduen balorazioarekin egokituta. Izatez, aurkeztutako eskariak aztertzean ikusi dugu badaudela lanbide okupazio bat baino gehiagoko lan boladak eta horrek ezin ditzake balorazioetan bikiztasunak sor; izangai beraren curriculumaren eta eskariaren artean lan egindako aldian aldeak; egindako ikastaroen deskribapen urria.



e) Laneko orientatzaileen lan-poltsa sortzeko deialdian, 2011n egin zena, eskabideak eta dagozkion curriculumak aurkezteko emandako epeak ez ditu 13 egunak gainditzen. Gogoan hartuta epe honetan eskatzaileak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan alta eman behar duela, baldin eta aurretik eman gabe bazegoen, epe hori urriegia da.

f) Ez dira lan-poltsa kudeatzeko arauak ezarri eta honenbestez, ez da horren funtzionamendua argitaratu eta ez da zehaztu merezimenduak metatutako esperientziarekin gaurkotuko diren. Eratu zenez geroztik ez dira lan-poltsaren merezimenduak gaurkotu.

ALEGAZIOAK, LANBIDE 2011/2012 LANGILEEN KONTRATAZIOAREN FISKALIZAZIOAREN ONDORIOEI EUSKO JAURLARITZAREN EKONOMIA KONTROLERAKO BULEGOAREN ZUZENDARI-OHIAK JARRITAKOAK

SARRERA

Fiskalizazio-gai izan diren gertakariak eta horien ondorioak zuzen ulertu ahal izateko, beharrezkoa da Lanbide-Enpleguaren Euskal Zerbitzuak aribidea hasi zueneko inguruabar bereziak eta funtzionamenduko hasierako hilabeteen berri izatea.

Inguruabar hauek agerian uzten dute Enpleguaren Euskal Zerbitzuaren konplexutasuna zuen erakundea abian jartzeko zegoen baliabide, prozedura eta hitz labur esanda, behar hainbateko egituraren eskasia, enpleguaren esparruan zerbitzu emateko gizarte demandak bizi zuen tentsio bereziko une hartan, Euskadin lan merkatuko datuen larritasunaren ondorioz. Ziurrenik, eskualdatutako baliabideen bolumena, eskumen berriaren izaera oinarritzakoa eta dimentsioa, eta hasiera-hasieratik egiaz gauzatzeko zegoen behar luzaezina aintzat hartuta, gure autogobernuaren historian prozesua soilik aldera daiteke osasun zerbitzu publikoaren transferentziarekin (1988); gogoan izan, euskal funtzio publikoaren antolamendu sisteman erabat barneratzeko hainbat urte behar izan zituelako, HKEEren orduko txostenetan ikus daitekeen legez. Osakidetzari gertatu zitzaion bezalaxe, integrazioa are zailagoa egiten du langileak hainbat iturritatik etortzeak (EGAILANeko lan kontratupekoak, EAEren administrazioko funtzionarioak, transferitutako langileria...), horietako bakoitza nor bere lege eta ordainsarien araubidearekin.

Azalduko dugun moduan, inguruabar guztiz salbuespenezko hauek eta Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren molde juridikoa Erakunde Autonomoarenera aldatzea kudeatzeko zailtasunarekin batean, horrek guztiak LANBIDEren ekimenak baldintzapetu zituen eta bereziki langileen kudeaketa eta kontratazioarekin lotutakoak; baita, SBEn kudeaketa asignatzea ere.

LANBIDEk aribideari 575 pertsonarekin ekin zion, enplegurako lan, enplegu eta lanbide prestakuntzaren esparruan lan legeria egikaritzeko gaietan egiteko eta zerbitzuak eskuordetu ondoren, ordura arte Estatuko Enplegu Publikoaren Zerbitzuaren (EEPZ) esku zegoena, eta Eusko Jaurlaritzaren antzinako Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzatik eta Egailan sozietate publikotik zetorren langileria barne hartu ostean. Langile kopuru hau, termino erlatiboetan, transferentzien prozesuan beste Autonomia Erkidego batzuek jasotakoa baino askoz txikiagoa izan zen; gogoan hartu behar da, gainera, Euskal Herrian 2010. urte amaieran gauzatu zela, egungo ekonomia krisia bete-betean zela.

Erakunde oro dagozkion eskumenak betetzeko baliabideak zuzkitzetik abiarazten da; LANBIDEren kasuan enplegu politika aktiboen esparruan pertsona eta enpresei arreta ematea eta enplegu eta prestakuntza programen programazioa eta kudeaketa zuen helburu. Aurrekontuko terminoetan, 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera 760 milioi euro baino gehiago kudeatu behar izan ziren. Ikuspegi soziala abiaburu hartuta, ekonomia krisia eta langabezia puri-purian ziren unean guztiz zerbitzu oinarritzakoa zen. Horrek

guztiak goi mailako espezializazioa duen egitura eskatze du, zeharkako baliabideak ezagutu eta kudeaketa euskarrituko dutenak.

Bada, esparru hauek betetzeko, LANBIDEk jardueraren hasieran, atal horizontalei egotzitako egiteko espezializatuak betetzen zituzten lanpostuetarako honako langile bolumena zuen:

- Langileen kudeaketa 0 Pertsona
- Zerbitzu juridikoak: 1 Pertsona
- Ekonomia/aurrekontuko zerbitzuak: 3 Pertsona
- Administrazio zerbitzuak: 1 Pertsona
- Kontratazio zerbitzua: 0 Pertsona

Egoera honetan baliabide pertsonal eskuragarriak (kuantitatibo eta kualitatiboak) garrantzitsuak ziren administrazioko prozedurak zuzen aplikatzeko eta horien trazabilitaterako.

Zerbitzuaren jardueraren hastapenetan eskura genuen langile kopuruaren azalpen labur hau egin ostean, jardueraren hasieran funtzionamendu eta erabakietan eragina izan zuten beste osagarri batzuen berri eman behar da:

1) Jasotako egiturazko baliabideek Enplegu Bulego sarea barne hartzen zuten, modernizazioan gabezia larriak zituena eta are esanguratsuagoa zena erabakiak hartu eta kudeatzeko orduan, zerbitzu nagusietarako egoitzarik eza. Honela, bada, 2011ko iraila bitartera arte 4 zentrotan egin zen lan, horrek berekin dakarren koordinazio eta integrazio zailtasunekin batean.

2) Gauzazko baliabideek, besteak beste, hiru komunikazio sistema ezberdin barne hartzen zituzten, erakundearen posta elektronikoko sistemarik eza, enplegu eta prestakuntza programetarako espedienteak bideratuko zituzten kudeatzaile eza, eta enplegu demandari buruzko informazioa Enplegu Zerbitzu Publikoaren Informazio Sisteman integrazio eza, 2011ko udaberrian lortu zena.

3) Antolamendu baliabideak existitzen ez zen ondarea zen. Ez zen EEPZko langileen lanpostuen inongo monografiarik jaso eta antzinako Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzakoa zen langileek soilik zuten LZ. Ez zegoen inongo antolamendu-egiturarik, LANBIDEren estatutuetan bereizitakoa soilik, eta ezin ziren erdi mailako koadroak lanpostu dokumentatu gabe, berri eta LZrik gabekoetara aldatu.

4) Berebat, erakunde baten kudeaketa esparru anitzetan ezartzeko prozedura normalizatu eza ere azpimarratu behar da.

5) Jardueraren hasieraren berezko baldintzei buruzko irizpen hauei gaineratu behar zaie SBEn kudeaketa bere gain hartu duela erakundearen aurrez egiteko horiek bete zituen inongo langilerik izan gabe eta LANBIDE sortu eta urtebete eskasera. Jarduera berriaren bolumenak eta zerbitzuaren izaera atzeraezinak langile berriak ekartzera behartu zuen, gai eta erakundearen ezaugarriei buruzko prestakuntza behar larriak zituena.

Ezinbestekoa da hasierako irizpen hauek guztiak egitea txostenean aipatzen diren atalen xehetasunei ekin aurretik, izan ere, azaldutako egoera apartekoak modu kritikoa baldintzatu du LANBIDEk langileen kontratazio gaietan lehenengo hilabeteetan izandako bilakaera. Egoera honek azaltzen du HKEEren txostenak aipatzen dituen legezko eskakizun zenbait betetzean izandako atzerapena eta beste erabaki batzuk hartu izana justifikatzen du, inguruabarrek guztiz eragindakoak eta horien larritasunarekiko guztiz proportzionatuak. Berebat, adierazi behar da LANBIDEren giza baliabideen kudeaketa baldintzapetu duen aipatutako apartekotasunaren mailaren frogarik onena dela gau egun egoera berean jarraitzen duela; esate batera, erakundeak LZrik gabe jarraitzen du txostenak aipagai duen epearen amaiera data igaro eta urtebetera.

TXOSTENAREN EDUKIARI JARRITAKO ALEGAZIOAK

Aldez aurrekoak

Ondoko alegazioak aurreko Gobernuaren agintaldiari dagozkio, 2012ko abenduaren 16an amaitutakoa, nahiz txostenak aztergai duen aldia abenduaren 31ra arte luzatzen den. Adierazi behar da beraz, batetik fiskalizazio-gai izan diren jardueretako batzuk alegazio hauen esparruz kanpo gelditzen direla eta bestetik, salatutako zenbait egoera irregularrek txosten hau idatzi den datan, aztertutako aldia amaitu eta urtebete baino gehiago igarota dela, bere horretan dirautela (LZ ez onartu izana, esate baterako).

b) Ondorioei jarritako alegazioak

Ondotik txostenaren ondorioei jarritako alegazioak adieraziko ditugu, azken honen zerbakitzea gordez.

LANBIDEren LZ egiteari dagokionez, hainbat auzi azpimarratu behar ditugu:

- LANBIDE ZPEP modura LZ mamitzen 2011ko martxoan hasi zen, hau da, sortu eta hiru hilabeteren buruan, EJren Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren laguntzarekin, zeinak lanpostu zerrendak egiten eskarmentu luzea eta aitortua zuten bi teknikari ekarri zituen. Hori egiteko aurreikuspena 10 hilabetekoa zen.
- LANBIDE zuzenbide pribatuko erakunde publiko izatetik erakunde autonomo bihurtzera aldatzeak LZren edukiak birbideratzea ekarri zuen, izan ere izaera juridiko berriak oinarritik aldatzen zuen hasierako planteamendua. Zuzenbide pribatuko erakunde publikoa nagusiki lan esparru modura konfiguratu zen, lanpostu eta langileak laboralak izanik; ordea, erakunde autonomoak funtzionario izaera garbia dauka.
- LANBIDEko langile beharrianen definizioa eta efektiboen behin-betiko kopurua erakundeak egiteko guztiak betetzeko sumatu dituen beharretara egokitzen joan da, SBE barne, LANBIDEren eskumen esparruari beranduago txertatu zitzaiona.

Edonola ere, ez da ulertzen LZrik ez izateak nola eragin dezakeen aldi baterako kontratuak edo bitarteko izendapenak egiteko ezintasuna. Zerbitzu publikoa ematen jarraitzeko behar larriari eman zitzaiokeen aukera proportzional bakarra izateaz gain, ez dago txostenak salatzen duen ondoriozko erlazio hori; aldi baterako kontratuak, izatez, egiturazko plantillak bete ezin ditzakeen beharrizanak betetzeko dira (LZk islatzen duena, hain zuzen ere) eta lanpostua arauz bete arte bitarteko langileak izendatzeak lanpostua egiaz izatea baizik ez du eskatzen, zeinak behar bezala banakatua egon behar duen, nahiz horren identifikazioa aurrekontuko kodea oinarri hartuta edo bestelako zeinahi eratan egiten den. Honi gaineratu behar zaio, LANBIDE erakunde autonomoak 2012an bere LZ onartu ez bazuen ere (gaurko egunean ere onartu gabe dauka), LANBIDE erakunde publikoak 2011 eta 2012an izan zuen aurrekontu plantilla bat. Honi dagokionez, 2012/9/17 eta 2012/12/10 epaiek (kopiak txertatu dira) adierazten dute LANBIDEk beharrezko egokitzapenak egin ditzakeela zerbitzua ematetik eratorritako beharrizanen arabera, baina betiere langileen lan baldintzak arautzen dituen administrazio zein lan araudia erabat betez; zehatzago esanda, Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 19. artikuluan xedatutakoa bete behar da, nahiz ez duen LZ onartu; honela, bada, lanpostu bat betetzeko deialdia egiten denean, langile funtzionarioentzat gordea balego, lanpostua beteko duenak izaera hori duela bermatu beharko da.

Horregatik, txostenaren 1. ondorioaren azken aipua kentzeko eskatzen dut.

2) LZ epe laburrean egiteko aurreikuspenak idazpuru honetan aipatzen diren kontratu eta izendapenak egitea ekarri zuen. Jada adierazitako LZ egitean izandako atzerapenak justifikatzen du egoera hau.

3) Idazpuru honetan aipagai diren langileak LANBIDE sortu aurretik Egailan-en SBEn programa pilotua abian jarri zuen lantaldekoak dira, gaur egun Erakunde Autonomoan jarraitzen duena; honenbestez, ez zegokion horien kontratua amaitzea. Honi dagokionez, Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailaren asmoa legegintzaldiaren hasieratik izan zen enplegu politika aktiboen kudeaketa oinarri hartuta, LANBIDE Enplegu Sistema Publikotik sistemaren prestazio ekonomikoak ez ezik (Sarreraren Berme Errenta eta Etxebizitzaren Prestazio Osagarria), arrisku edo baztertze arriskuan zeuden pertsonen laneratzeko beharrezko baliabideen ezarpena ere kudeatzea. Prestakuntza eta enpleguaren bitartez, babestua nahiz lagundua izan, pertsona hauen enplegarritasun baldintzak hobetzea zen helburua, maiz sarritan lan merkatutik oso urruti egondakoak, lanpostu batetarako irispidea izan zezaten.

Inguruabar honen aurrean, esperimentuzko proiektu pilotu bat abiarazi zen, "Barneratzeko Errenta Aktiboa" izenekoa, LANBIDEko bulego propioa zuten udalerrietan (Lanbide Egailaneko bulegoen marka modura hartuta, ez nortasun juridikoa zuen erakunde modura); hain zuzen ere, honako udalerrri hauetan abiarazi zen: Amurrio eta Agurainen, Araban; Irun, Lasarte-Oria eta Elgoibarren Gipuzkoan eta Basauri, Erandio eta Portugaleten Bizkaian.

Sailaren asmoa zen udalerrri horietan ezarritako Barneratzeko Errenta Aktiboa aipatutako proiektu pilotuarekin, sistemaren prestazio ekonomikoen kudeaketaz gain

(Sarrerren Berme Errenta eta Etxebizitzaren Prestazio Osagarria) Egailanetik beharrezko ziren aktibazio politikak aplikatzea udalerrri horietan bizi ziren zerbitzu sozialen 3.000 hartzailleekin, lanerako aktibagarritzat jotzen direnak.

Ekintza hauek guztiak LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzua sendotzera zuzenduak zeuden, abenduaren 23ko 18/2008 Legea, Sarrerren Bermerako eta Gizarteratzeko, eta abenduaren 23ko 2/2009 Legearen Xedapen Gehigarri Bigarrena, 2010eko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak onartzen zituenena, onartu zirenetik aurrera eratutako araudi-esparruaren barruan.

Ekintza horiek berrizaleak ziren eta honenbestez, aurreikusi gabe zeuden Egailanek 2010eko ekitaldian zehar egin behar zituenen artean; honenbestez, eta abenduaren 23ko 2/2009 Legearen 22. artikuluan xedatutakoari jarraiki, 2010eko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak onesten dituenena, beharrezkoa zen Gobernu Kontseiluaren baimena jarduera esanguratsu zen aldetik. Jarduera horri zegokion baimena eman zitzaiolarik eta bideratu ahal izateko aipagai den langile kontratazioa gauzatu zen, gerora aipagai diren Bulegoetan zerbitzu ematen jarraitu duena; izan ere, horiek zuten ezagutza eta prestakuntza agindutako alorren kudeaketarako.

Ondorioa kentzeko eskatzen da.

4) Atal honek aipagai duen deialdia 2011ko ekainaren 21eko Administrazio Kontseiluaren Erabaki bati dagokiola esan behar da, hau da, LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren esparru juridikoan. Horregatik, deialdian zehaztugabetasunak daudela esaten denean, hala nola, garatu beharreko egitekoek botere publikoen aribidea eragiten dutela, deialdian ez dagoela irizpiderik edo motibazio falta dagoela, esan beharra dago ez zegoela lanpostuen izaeraren alde aurreko baloraziorik antolamendu-egitura berrira egokitzean, eta honenbestez, erreferentzia modura jatorrian lanpostuak zituen egiteko eta izaera hartzen ziren (gehienak EEZPkoak) eta merezimenduen balorazioa ere horiei zegokien. Litekeena da egitura sendo baten esparruan egin ohi den bezain modu zorrotzean ez egin izatea, baina zuzkiduraren emaitza ez zen erreklamazio-gai izan. Gure iritzira ez zien horrek deialdiko partaideei inongo irregulartasun edo diskriminaziorik eragin.

Berebat, adierazi beharrean gara gaurdaino lanak hautatako langileek betetzen jarraitu dutela eta horrek eragimen eta efizientzia terminoetan prozesua egokia izan zela erakusten du.

Ondorioa kentzeko eskatzen da.

5) Atal honek aipagai dituen kontratuak Funtzio Publikoaren Zuzendaritzari betetzeko eskatu zitzaion kategoria bati dagozkio eta ez zen izangairik izan. LANBIDERI egindako enplegu eskaintza orokor bat baliatu zen eta baldintzak betetzen zituzten izangaiak hautatu ziren, zerrenda ofizialen bidez artatu gabeko langile-kontrataziorako ezarritako prozedura betez (2006ko maiatzaren 30eko Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren 22. artikulua).

Ondorioa kentzeko eskatzen da.

6) Aipagai diren kontratuak Egailanek egin zituen LANBIDEk jarduerari ekin aurretik eta erakundearen funtzionamendurako beharrezkoak diren lanpostuei dagozkie. Zehatzago esanda, horietako bat Oiongo enplegu bulegoko langile bakarrari dagokio eta bestea, informatika alorreko langilerari; hori guztia sozietate publikoan indarrean zegoen lan hitzarmena baliatuta. Egoera hau jarduerari ekiteko Dekretuan aurreikusten ez bada, horiek izapidetu eta onartzeko epeengatik da, egoera hori gertatu aurretik mamitu baitziren.

Ondorioa kentzeko eskatzen da.

7) Egailanek, baina, bideratu zuen 2010eko azaroan aldi baterako bi administrari laguntzaile lanpostu hautatzeko prozesua, SBEren Plan Pilotuko lanpostuak betetzeko. Prozesu hau 2010eko abenduan amaitu zen eta kontratazioak ezin egin izan ziren 2011ko urtarrilera arte. Bi kontratazioak beharrezkoak ziren SBE abiarazteko eta horregatik egin ziren, gero gauzatzen berandutu arren. Azpimarratzekoa da bi kontratazioetatik bakarra dagoela indarrean.

Ondorioa kentzeko eskatzen da.

8) Atal honek aipagai dituen epaiak bi gai zehatzi buruzkoak dira:

a) Adierazi modura, LANBIDEk abian jarri zenean ez zituen bere egitekoa zuzen betetzeko beharrezko baliabide pertsonal eta egiturazkoak. LANBIDEn lehentasunetako bat funtzionamendu alorretan arduradunak izatea zen (enplegu sustapena, prestakuntza, SBE, toki eta eskualdearen garapena, informatikoa, kudeaketa ekonomikoa, ea).

Beharrian horiei aurre egiteko eta LANBIDEk berezko baliabiderik ez zuenez gero, 2011ko ekainean deialdi publiko bat egin zuen, langile guztiei eta erakundearen ordezkariak zuten sindikatuei jakinarazi zitzaiena eta kanpoko enpresa bat kontratatu zuen balizko hautagaien curriculum vitae-tan jasotako merezimenduak balioztatuko zituen, premiaz arduradun plaza horiek betetzearren, erakundeak bere gain hartuak zituen enplegu, prestakuntza eta abarrekiko programak abian jartzeko ezinbestekoak zirenak.

45 izangaietatik gora aurkeztu ziren, guztiak lanpostua jabetzan zuten LANBIDeko profesionalak. Haien CVak deialdiaren oinarrien arabera balio-neurtu zituzten eta gerora izangai guztiei aurrez aurreko elkarrizketa egin zitzaien; bertan egon ziren prozesu honetan parte hartzea onartu zuten zentraletako ordezkari sindikalak; guztiei luzatu zitzaien gonbitea. Berebat adierazi behar da izan zirela lanpostu batzuk, zeinetan bakarrik izangai bat aurkeztu zen.

Hautatutako izangaiak LANBIDeko zuzendari nagusiaren ebazpen bitartez izendatu zituzten eta horien izendapenean berariaz jaso zen izaera behin-behinekoa zuela harik eta LZk behin-betiko betetzeko moldea zehazten zuen arte. Guztiek zuten lanpostua jabetzan LANBIDEn eta erakundera eskualdatutako langileen kolektibokoak.

Epaia 2012ko urrian ebatzi zen eta alorreko arduradun horiek izendatu zituen zuzendaritza talde osoa ordezkaturik zelarik, esan behar da gaurko egunez guztiek



jarraitzen dutela euren postuetan eta 2011-2012 aldian erakutsitako profesionaltasun eta eraginkortasun berberarekin betetzen dituztela euren egitekoak.

Modu berean jokatu zen izaera teknikoa zuten lanpostuak betetzeko orduan (aurreikuspen eta segurtasun eta osasun teknikaria, aholkularitza juridikoa) eta kasu guztietan deialdian publikoak izan ziren eta plantillari eta ordezkari sindikalei jakinarazi zitzaizkien. Berebat, lanpostu guztiak behin-behinean bete ziren harik eta LZ onartu arte.

b) EEZPtik zetozen 61 orientatzaileen auzian ebatzitako epaiei dagokienez, LANBIDEk lan ikuskaritzaren eskeen aurrean eta gizarte mailako jurisdikzio atalaren geroko demanden aurrean soilik esan ahal izan zuen lan orientatzailearen figura LANBIDEn strategiaren pieza giltzarrietako bat zela eta honenbestez, ez zela bere plantillan langile kopuru urritzea aurreikusten. Gogorarazi behar da langile hauek jada eskualdaketa egin aurretik egiteko horiek betetzen zituztela eta 2011z geroztik erakundeak 100 orientatzaile kontratu zituela bere enplegu bulegoetarako, erakundeak bere horretan eutsi diena egitekoak bete ahal izateko. Egungo LZ proposamenak lan orientatzailearen figura sendotzen du; honek berariazko monografia propioa du eta negoziazio fasean da EJren esparruan orientatzaileen kontratazioko lan-poltsa arautuko duen araudia.

Esandakotik ondorioztatzen da epaiek ez dutela zalantzan jartzen LANBIDEk zuzkiduren deialdietarako duen eskumena, ezta horien eraginkortasuna ere; epaiak eragin zituzten irregulartasunak hainbat oinarri-arau desegokiri dagozkie. Honela, bada, ebazpen judizialek ez dute inongo arbitrariotasunik leporatzen zuzkidura eta kontratazioari dagokionez; are gehiago, sortutako orientatzaileen poltsak erabiltzen dira oraindik ere eta ez dira horiek ordezkaturako dituzten beste batzuk sortu. Zehaztaperen garrantzitsu hau ondorioaren atalean jaso behar litzatekeela uste dugu, hobeto ulertu eta testuinguruan kokatzeko, kontuan izanik, batez ere, txostenaren helburuetako bat lan-poltsak mamitzeko prozeduren legezkotasunaren azterketa dela; honenbestez, alegazio honetan adierazitako adierarekin ondorioa aldatzeko eskatzen da.

9) Ez dago alegaziorik

10) Ondorio honi dagokionez zera alegatu du:

a) Aipatutako aldatetako izaera teknikoa edo funtzionala duten arrazoen ondorio dira, enplegu loturaren molde juridikoa lanaren egiazko izaerari egokitu nahian.

b) Azterlanari dagokionez, SBE LANBIDEn sartu aurretik aurkeztu zenak, balioespen izaera zuen enplegu bulegoak zeuden eremuetan existitzen ziren SBE espediente kopuruaren, horietan lan egiten zuten langileen eta aurreikusitako beharizanen arabera, bai hauetan, bai zerbitzu nagusietan ere. Inkorporazio hau justifikatzen zuen arrazoa SBEn kudeaketa LANBIDEk bere gain hartu izana zen.

Idazpurua kentzeko eskatzen da.

Orientatzaileen lan poltsari dagokionez, zera ikusi dugu:

- Kontratazio poltsa sortzea deitu zuen atalari zegokionez, esan behar da langileen kudeaketa gaietan eskumena LANBIDEn zuzendari nagusiari zegokiola eta berak egin zuela mahai osatzeko deia. Berebat, LANBIDEk bere kontratazio poltsak sortzeko eskumena zuen, bere sorrera dekretuak adierazten duen legez.
- Orientatzaile lanpostuaren normalizazio ezak, asko jota, hautazkoagoa egiten du eskarmentuaren balorazioa, baina, inola ere ez du eragozten; orientatzailearen figura jada aitortua zegoen enplegu politiken esparruan, bai EEZPn, bai Egailanen ere, eta LANBIDE sortu zen unean lanerako postuak ziren bi administrazioetan; honenbestez, ez da egia arautu gabeko funtzioak zituztenik. Horren erakusgarri dira EEZPtik etorritako 61 orientatzaileak edo Egailanetik etorritako 10ak.
- Egia da deialdian ez zela zehaztu zein tratamendu emango zitzaien denbora zatikiei eta honenbestez, gabezia irizpide guztiz arrazoizkoa baliatuta zuzendu zen, merezimendu printzipioarekin bat zetorrena eta eskatzaile guztiei berdintasun zorrotz berarekin ezarrita.
- Ekonomia eta enplegu egoeraren ondorioz LANBIDEn sortu zen egoerari aurre egiteko orientazioaren alorrean behar bezain prestatuak zeuden langileak izateko beharrak eta SBE txertatzearekin aurreikusitako egoerak, hautaketa bidetzat LANBIDEn aplikazioa baliatzea ekarri zuen, jada eskatzaileen lanbide informazioa jasotzen zuelako. Informazio hau baliatu zen eta aurkeztu eta balioetsitako erreklamazioek zuzendu zituzten azaleratutako hutsak.
- Lan poltsan izen emateko emandako epea laburregitzat jotzea errealitateak baitetsi ez duen apriorismoa da, aurkeztu zen eskabide kopuru izugarria aintzat hartuta. Bestalde, ia eskatzaile guztiak jada LANBIDEn erregistratuak zeuden eta alta eskaria egun batean egiten da. Edonola ere, txostenak ez du esaten zein arau urratu den eta ez du ez egiaztatzen, ezta zenbatesten ere lehiari kaltea eragin dionik.
- 2011ko azaroaren 3tik aurrera, LANBIDE erakunde autonomo bihurtzen dena eta honenbestez, lan-poltsaren kudeaketa zuzenean Funtzio Publikoaren zuzendaritzaren baitako izatera aldatzen dena, hori kudeatzeko arauak EAEn zerbitzu ematen duten langileentzat sortutako eta indarreko bestelako zeinahi lan-poltsarenak dira. Arau honi jarraiki, eskarmentuaren arabera merezimenduak gaurkotzea, birbaremazio deitzen dena, ekitaldi bakoitzean sortutako lan-poltsekiko araudiaren arabera egiten da.

Honegatik guztiagatik ondorio hau ezabatzea eskatzen da.



ERANSKINARI JARRITAKO ALEGAZIOAK

LANGILE GASTUEN AURREKONTUA:

Eranskinen atal honetan 2011 eta 2012ko ekitaldietarako langileen aurrekontuen zifrak erakutsi ondoren adierazi da, bai hasierako egoeran, bai egindako exekuzioan, ez dela 2011ko ekitaldirako aurrekontua kalkulatzeko euskarrituko duen xehapenik eskuratu.

Transferentzien Batzorde mistoaren bilera 2010eko urriaren 28an egin zen eta urte horretako beretako Gobernu Kontseiluak onartu zuen. Epe hauek 2011ko aurrekontuak gastuen proiektio eta balioespenak eginez gauzatzera behartzen dute, horren negoziazioan aurkeztutako datuen arabera, azken unera arte zehazten ez direnak. Nolanahi ere, datu hauek Aurrekontuen Zuzendaritzara igortzen diren Oroitidazkietan ez ezik, Dekretuen euskarri diren Oroitidazki ekonomikoetan ere jasoak daude, bai LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Estatutuak onartzen dituenean, bai LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuaren jardueren hasiera eta giza eta gauzazko baliabideen atxikipen baldintzak arautzen dituenean ere. Zehatzago esanda, langileen arloan erakunde berria osatuko duten pertsonen zerrendarekin egiten dira, une horretan jasotzen dituzten ordainsariekin eta plantilla onartuz gero jasoko lituzketenekin eta honenbestez, erkidego honetako ordainsarietara homologaturik.

Egikaritza ez dela asko aldatzen hasierako aurreikuspenetik ikus daiteke. Desbideratzea soldatak ez homologatzenetik dator.

2) HASIERAKO BALIABIDE PERTSONALETAN ADIERAZTEN DENAREKIKO:

Eskualdatutako langileriari buruzko zifrak ematen dira adieraziaz “gainera, nominan 2011ko urtarrilaren 1eko datarekin ageri dira” eta badirudi horrekin esan nahi dela ez lukeela agertu behar:

Itsas Institutu Sozialetik eskualdatutako funtzionario bat

Gogorarazi behar da, zure txostenean adierazitako araudi ezargarriaz gainera, publikotasuna eman zitzaiela Itsas Institutu Sozialeko egiteko eta zerbitzuen eskualdaketa buruzko Dekretuei ondotik adierazitako baliabideen bidez:

288/2010 DEKRETUA, azaroaren 9koa, 2010eko urriaren 28ko Eskualdaketen Batzorde Mistoaren Erabakia onartzen duena, Itsas Institutu Sozialeko egiteko eta zerbitzuak eskualdatzeari buruzkoa, hezkuntza, enplegu eta enplegurako lanbide prestakuntzako gaietan, azaroaren 5eko 1442/2010 Errege Dekretuak ezarritako hitzetan.

Erakunde honetan enplegu gaietan betetzen zituzten egitekoek aipatutako nominan ageri den pertsona eskualdatzea ekarri zuen, EEZPko funtzionarioen baldintza beretan eskualdatu zena.

b) Aipatzen diren gainerako suposamenduak Erakundearen jardueren hasiera bideratzeko Dekretua izapidetzean aurreikusi ezin izan ziren egoerak dira, hori onartu ostean gertatu zirenak. Eta ez horregatik legezko babesik gabe, langileen kudeaketa dinamikoa baita eta zerbitzuaren beharrezanetara eta bete beharreko egitekoetara egokituz joan behar duena.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

3) LANERATU EZ ZIREN PERTSONEI BURUZ EGITEN DEN BESTE IRIZPENARI DAGOKIONEZ:

Egailan, SAko administrari laguntzailea LANBIDEnen jarduera abiarazteko espedientea izapidetu zen unean, lan kontratupean ari zen zerbitzu ematen sozietate publikoan, eta honenbestez, eskualdatzeko gai zen. Abenduaren 30eko baja ezin aurreikusi izan zen prozeduran.



BOTO PARTIKULARRA, HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAREN KONTSEILARI DEN JOSÉ IGNACIO MARTÍNEZ CHURIAQUE JAUNAK LANBIDE-ENPLEGUAREN EUSKAL ZERBITZUAK GAUZATUTAKO LANGILEEN KONTRATAZIOARI BURUZKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI JARRITAKOA.

HKEErren Osokoak, 2014ko otsailaren 27ko bilkuran, kideen gehiengoarekin, goiburuan aipatutako fiskalizazio txostena onartu du. Honako boto partikular hau behin betiko txostena onartzeko prozesuarekiko eta bere edukiarekiko ditudan desadostasunen ondorioz aurkezten dut; hona hemen arrazoiak labur adierazita:

I.- BEHIN-BETIKO TXOSTENA ONESTEKO PROZESUAREKIKO DESADOSTASUNAK

Txostenaren zirriborroaren lehenengo bertsioa joan den 2013ko azaroaren 20an aurkeztu zitzaion Auditoreen Batzorde Teknikoari (ABT); txostena egin zuen lantaldeak mamitutako lehenengo idatzaldi horrek kontrol lana gauzatu zuen taldearen onespina zuen. Legea betetzeari buruzko txosten batek izan ohi duen egitura klasikoa zekarren. *Iritzia kualifikatzen zuten hainbat salbuespen* barne hartzen zituen, zehazki langileen kontratazio gaitan eta lan-poltsak eratzean legezko araudiaren 13 ez-betetze eta irizpenak jasotzen zituzten 3 atal, hainbat akats barne hartzen zituztenak.

Debatearen ostean, auditore buruek aho batez txostenaren egitura aldatzea proposatu zuten, iritziaren eta irizpenen atalak kendu eta azaleratutako egoerak Ondorioen atal bakar batean bilduko zituen, ikusitako egoerarik bakar bat ere kendu edo gaineratu gabe eta horien idazkera nabarmen aldatu gabe.

HKEEren Osokoak, 2013ko azaroaren 27an, 5eko gehiengoarekin 2ren aurka, Behin-behineko txostena onartu zuen, 15 puntu dituen Ondorioen atala barne hartzen duena. Behin-behineko txosten hori, besteak beste, Ekonomia Kontrolerako Bulegoaren (EKB) zuzendari ohiari eta egungo zuzendariari igorri zitzaientzen, zeinek hurrenez hurren 14 eta 3 ondorio alegazioa jarri zieten.

2014ko otsailaren 27an, HKEEren Osokoak, 2ren aurka 5eko gehiengo aldearekin:

5 ondorio kendu zituen (behin behineko txostenean Osokoak onartutakoen % 33), dokumentazio euskarri osagarri berririk izan gabe edota aurkeztutako dokumentazioa horiek ezabatzeko euskarri izan gabe.

b) Zenbait ondorioen idazkera aldarazi zuen, berriz alegazioen izapidea bideratu gabe eta gauzatu gabeko lanei buruzko ondorioak barne hartuz; HKEEren Prozeduren Eskuliburuak ez du horretarako baimenik ematen.

Ikus bedi, esate baterako, Ondorioen II. atalaren 10. atal bitxia, era honetara abiarazten dena: “10. Ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak betetzea modu esanguratsuan eragozten ez duten beste irizpen batzuk ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere bai”, txostenaren onespina bozkatu duten Kontseilariak gehitutakoa, konturatu gabe fiskalizazioak ez duela ekonomia-



finantza jarduera aztergai izan eta ez dagoela Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren kudeaketa hobetzeko proposamenik txostenean (9. ondorioa langileen kontratazioa hobetzeko gomendioa baizik ez da).

c) Txostenari emandako idazkera berriarekin ez da lanaren helburua betetzen, langileen kontratazioa fiskalizatzea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak 2011-2012an lan-poltsak mamitzeko baliatu zituen prozeduren legezkotasuna aztertzea, alegia; honenbestez, osagabe eta funtsik gabe geratzen da txostena, ez baitira azaleratutako alderdi guztien gaineko ondorioak jaso, fiskalizazio lanean zehar hautemandakoak.

II.- BAZTER UTZITAKO ONDORIOAK, ZEINAK TXOSTENAREN ZATI BEHAR DUTEN IZAN EGOKI ULERTU ETA JASOTAKO MANDATUA BETETZEKO

1.- Behin-behineko Txostenean jasotako ondorioa eta behin betiko Txostenetik kendu dena, Estatuko Enplegu Publikoaren Zerbitzutik (EEPZ) eskualdatutako langileria buruzkoa, zeinaren enplegu loturari LANBIDEk bere horretan eusten dion kontratuak luzatu gabe. Ondorioak zera zioen:

SEPEtik eskualdatutako langileetatik, 12 hilabeteko aldi baterako kontratua zuten 61 lan orientatzailek kontratu horri luzaturik gehienera 2 urte arte eutsi diote, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bi urte horiez haratago horien luzapena berariaz adostu gabe.

Ene iritzira eutsi egin behar litzaioke ondotik adieraziko ditudan arrazoiengatik:

Irailaren 17ko 35/2010 Legearen 13. artikulua, lan merkatua zaharberritzeko premiazko neurriei buruzkoa, abenduaren 3ko 13/2010 Errege Dekretu-Legearen 16. artikulua aldarazitakoa eta Enpleguaren Zerbitzu Publikoei buruzkoa, ezartzen du Orientazio, lanbide prestakuntza eta laneratze neurrien Aparteko Plana luzatuko dela, baina ez aldi baterako kontratuak automatikoki luzatuko direla.

Arauk ez du langileen kudeaketa gaitan eskumenen araubidea urratzen. Aginduak berak aurreikusten du Planaren luzaketaren kudeaketa autonomia erkidegoek eurek gauzatuko dutela.

Horregatik kontratu bakoitzaren kudeaketa eta luzatzeko aukera edo ez administrazio bakoitzaren eskumena da, kasu honetan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarena.

2.- Sarreraren Berme Errenta (SBE) izapidetzeko programako bitarteko langile funtzionarioari dagokionez behin-behineko txostenean jasotako ondorioa eta behin betiko txostenetik kendu dena. Ondorioak zera zioen:

2012an SBE izapidetzeko 189 programako bitarteko funtzionario izendatu dira (159 administrari, 17 lan orientatzaile eta 13 teknikari), programaren iraupena SBEren kudeaketa lanak egingo dituzten lanpostuak sortu eta hornitzeari lotuz. Zerbitzu hau ematea ez da aldi baterako edo koiunturaren arabera zehaztutako programa baten ondorio; honenbestez, izendapenak ez zaizkio Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 7/2007 Legearen 10.1.c artikuluari egokitzen.

Ene iritzira eutsi egin behar litzaioke ondotik adieraziko ditudan arrazoiengatik:

Lanbidek 189 izendapenentzat baliatutako bitarteko funtzionario moldea, aldi baterako programa bat egikaritzeko programako bitarteko funtzionarioari dagokiona da.

Aldi baterako programak egikaritzeko administrazioako langileak eta teknikariak bitarteko funtzionario izendatzeari buruz Funtzio Publikoko zuzendaritzak egindako 2012-04-03 eta 2012-04-25eko txostenek SBERako programako bitarteko funtzionarioen kontratazioa aztertzen dute eta aldi baterako programa dela ondorioztatzen dute.

Alabaina, Programa “SBE kudeatu eta izapidetzeari buruzko programa” modura identifikatzen da eta Funtzio Publikoko zuzendaritzak horren aldi baterako izaera defendatu du adieraziaz izendapenen iraupen eta amaiera eskumen hori hartzen duten lanpostuen sorrerari lotzen zaiola; horrek esan nahi du SBERen programa bere horretan ez dela aldi baterakoa, ezen programaren iraupena SBERen kudeaketa egitekoak beteko dituzten lanpostuak sortu eta aurreikusteari lotzen baitzaio, hau da, harik eta LZ onartzen den arte.

Programa ez dagokio aldi baterako izaera duen programa bati, baizik eta denboran iraunkorra den jarduera bati, legez Erakundeari eskuordetutako eskumenarekin bat datorrena, Sarrerren Bermerako eta Gizarteratzeko Legea aldarazten duen 4/2011 Legearen indarrez.

Horregatik guztiagatik, ez da justifikatzen izendapenak denbora eta koiunturazko programa zehatz baten ondorio direnik, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren 7/2007 Legearen 10.1.c artikuluari jarraiki.

Behin-behineko txostenean barne hartutako ondorioak ez zuen izendapenen beharra edo premia, kasua balitz, auzitan jartzen, baizik eta horiek gauzatzeko hautatu zen egitatezko suposamendua edo moldea: ez dira aldi baterako programa baterako kontratazioak, baizik eta Lanbideri eskuordetutako eskumen baterako.

3.- Laneko orientatzaileak kontratatze lan-poltsa sortzeari dagokionez behin-behineko txostenean jasotako ondorioa eta behin betiko txostenetik kendu dena Ondorioak zera zioen:

Lan orientatzaileak kontratatze lan poltsa sortzeko prozedurak (ikus A.4.1) ez du behar hainbat bermatu merezimenduen balorazioaren objektibotasuna, izan ere:

merezimenduak balioztatze irizpideak ez daude behar bezain zehaztuak. Bada, balorazioa egin duen enpresak oinarri-arauetan jaso gabeko irizpideak baliatu ditu.

